

80. EUSKAL SOZIOMETROA (2023ko maiatza) Prensa oharra

SARRERA

80. Euskal Soziometroa 2023ko bigarrena da. Bertan biltzen dira herritarrek egoerari buruz dituzten pertzepzioak eta euren jarrera eta balio politikoak. Landa lana 2023ko maiatzaren 2tik 5era bitartean egin zen.

EGOERAREN BALORAZIOA

Egoeraren balorazio positiboa, ekonomiarekin, osasungintzarekin eta etxebizitzarekin zerikusia duten kezkekin

Euskal herritarrek modu positiboan baloratzen dute Euskadiko **egoera politikoa**; % 66k uste dute ona edo oso ona dela. Gainera, gehienek uste dute urtebete barru egoera gaur egun bezala mantenduko dela (% 56); % 22k hobea izango dela eta % 17k okerragoa izango dela. Espainiako egoera politikoaren balorazioak txarra izaten jarraitzen du (% 68).

Egoera ekonomikoaren balorazioa ere positiboa da, eta % 75ek uste dute Euskadin ona edo oso ona dela. Gainera, azken hilabeteetan egoera ekonomikoaren balorazioak hobera egin du, aurreko urteko iritzi positiboaren % 69tik gaur egungo % 75era.

Europako egoera ekonomikoa zertxobait okerrago baloratzen da, baina gehienek ere modu positiboan baloratzen dute: % 53k uste dute ona edo oso ona dela; % 35ek, berriz, uste dute txarra edo oso txarra dela. % 11k ez dakitela esan dute edo ez dute erantzun nahi izan. Aldiz, Espainiako egoera ekonomikoa modu negatiboan baloratzen da oraindik (% 62), aurreko urtean baino neurri txikiagoan bada ere (% 73).

Europako testuinguruan, bere egoera ekonomikoa modu positiboagoan baloratzen dutenen artean dago Euskadi (% 75 ondo edo oso ondo); Luxenburgoren (% 86), Danimarkaren (% 79) eta Maltaren (% 75) atzetik. Espainia (% 22), berriz, Europako batez bestekoaren azpitik dago (% 35).

Etorkizun ekonomikoaz espero denari dagokienez, herritarren ia erdiek uste dute urtebete barru egoera ekonomikoak gaur egun bezala jarraituko duela (% 48); % 25ek uste dute egoera ekonomikoak hobera egingo duela, eta beste % 24k okerrera.

Euskadiko **arazo nagusiei** dagokienez, gizartearen lehen kezka lan-merkatuarekin lotutako arazoak dira berriz ere, baina beheranzko joera txiki batekin. Hala, biztanleriaren % 56k aipatu dute hiru arazo nagusien artean.

Osasungintza da gehien aipatzen den bigarren arazoa (% 27), baina nabarmen jaitsi da aurreko Soziometroarekin alderatuta (% 35). Atzetik datoz, etxebizitzarekin lotutako arazoak (% 25), nabarmen hazi direnak, eta arazo ekonomikoak (% 23), pisu pixka bat galdu eta laugarren postuan kokatu direnak.

Kopuru apalagotan aipatutako beste arazo batzuk honako hauek dira: delinkuentzia eta segurtasunik eza (% 15), goranzko joerarekin, egoera politikoa eta politikariak (% 15), eta zerbitzu publikoen funtzionamendua eta estaldura, eta laguntzak (% 10).

Egoera pertsonalarekiko balorazio eta itxaropen positiboak

Biztanleria pozik dago ere bere **bizitza pertsonalarekin**: % 80 oso edo nahiko pozik dago daraman bizitzarekin. Eta itxaropentsu agertu dira ere etorkizunari dagokionez: % 53k uste dute urtebete barru berdin joango zaiela, % 34k uste dute hobeto joango zaiela, eta soilik % 11k uste dute okerrago joango zaiela.

Egungo **lan-egoera pertsonala** hobeto baloratzen da ere: % 74k uste dute bere lan-egoera ona edo oso ona dela, eta ehuneko hori 2010etik aurrerako olatuen bildumako handiena da; urte horretan, % 64k baloratzen zuten modu positiboan euren lan-egoera.

Bestalde, **hilaren amaierara iristeko arazoak** dituztela dioten pertsonen ehunekoa egonkor mantentzen da: % 7k arazo asko eta % 25ek arazo batzuk.

Herritarren erdiek **konfiantza** handia edo nahikoa dute **etorkizunean** (% 52); % 38k konfiantza gutxi dute, eta % 8k soilik ez dute inolako konfiantzarik etorkizunean.

Pozik ere bizi diren herriarekin edo auzoarekin

Biztanleria nahiko pozik dago **bere herriarekin edo auzoarekin**, hamarretik 7,3ko poztasunarekin. Gogobetetze-maila apenas aldatu da azken 20 urteetan.

Herriei edo auzoei eragin diezaieketen arazo batzuk planteatuta, % 58 aparkaleku-arazoez kexu dira; % 36 trafikoz; % 29 zarataz eta % 26 airearen kutsaduraz

Azkenik, hamar pertsonatatik bederatzik uste dute beren herria edo hiria bizitzeko leku segurua dela (% 90), eta % 10ek uste dute ez dela segurua. Segurtasunik ezaren pertzepzioa zertxobait handiagoa da hiriburuetan (% 15), tartekoa udalerrri ertainetan (% 10), eta askoz txikiagoa udalerrri txikietan (% 3).

JARRERA ETA BALIO POLITIKOAK

Egonkortasuna jarrera, balorazio eta balio politikoetan

Politikan interesa pixkanaka handitzen joan da 2010az geroztik, biztanle gehienek interes gutxi edo batere interesik ez badute ere (% 63); 2010ean, % 20k agertzen zuten interes handia edo nahikoa, eta portzentaje hori % 37raino igo da. Interesa % 45eraino igotzen da maiatzaren 28ko Batzar Nagusietarako eta udaletarako hauteskundeen inguruan galdetuta.

Begikotasun politikoei dagokienez, EAJ da herritarren artean begikotasun handiena sortzen duen alderdia, 5,2 punturekin 0tik 10erako eskalan, bildumako puntuaziorik handiena. Ondoren daude, PSE-EE (4,5), EHBildu (4,2), Elkarrekin Podemos (3,8), PP (2,0), eta, azkenik, Vox (0,8). Alderdi guztiek handitu dituzte zertxobait beren sinpatiak.

Buruzagi politikoei dagokienez, baloraziorik altuena Iñigo Urkullu Lehendakariari dagokio, 5,7 puntu lortu baititu 0tik 10erako eskalan. Bigarrenik, Maddalen Iriarte ere ontzat eman dute herritarrek, 5,5 punturekin. Ondoren datoz Miren Gorrotxategi (4,8), Eneko Andueza (4,5), Amaia Martinez (3,0), eta, azkenik, Carlos Iturgaiz (2,2). Aurreko Soziometroekin alderatuta, buruzagi politikoen balorazioak mantendu ala apur bat igo dira.

Herritarren % 45 “soilik euskal herritar” edo “euskal herritar, espainiar baino gehiago” **sentitzen dira**, % 41 “euskal herritar bezain espainiar”, eta soilik % 8 “espainiar euskal herritar baino gehiago” edo “bakarrik espainiar”.

Bestalde, Euskadiko biztanleen % 23 **independentziaren** alde daude, % 30 independentziaren alde edo kontra leudeke egoeraren arabera, eta % 40 aurka daude.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 3.030 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa \pm % 1,8koa da EAE osorako, % 95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2023ko maiatzaren 2tik 5era egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

<http://www.euskadi.eus/ikerketa-soziologikoak>

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 19a